

Rufo Atxurra

*Lekeitio, Bizkaia
(1911-2002)*

Aurkibidea

Biografia



Lekeitioko Bergara kalean jaio zen. Amaren aldeko aitona Mutrikutik etorria zen; aita lekeitiar petoa. 14 urterekin eskola utzi eta lantegian hasi zen lanean. 52 urte egin zituen lantegi berean lanean, harik eta erretiroa hartu zuen arte. Herriko historiaz eta ohiturez arduratuta, bizi guztia igaro du herriko kontuak eta dokumentazioa biltzen: argazki zaharrak, ipuinak, abestiak, etnografia, hiztegia... Udalean egin diren zenbait argitalpenetarako ere laguntza handia izan da beti.

Zintak

LEK-001

- **Proiektua:** Euskal Herriko txori eta animaliak

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Data**: 2002-01-01
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: Mini Disc
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k)**: Elkoro, Lander - Badiola, Lander - Erkiaga, Ane - Elorza, Ander Marino - Barainka Zabala, Leire
- **Emalea**: Sarasua Aranberri, Asier

Pasarteak

1. 14 urterekin hasi eta 52 urte lantegi berean

- **Erref**: LEK-001/004
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:05:10. **Bukatu**: 00:06:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Aita arrantzalea zuen. Bera 14 urterekin eskola utzi zuenean autoen lantegi batean hasi zen lanean eta 52 urte egin zituen bertan, erretiroa hartu arte, hain zuzen ere.</p>

Transkripzioa

-Eta aitta ze zan arrantzalia?
Arrantzalia
-Zeure aitta?
-Arrantzalian umia naz ni. Arrantzalina.
-Orduan ee, Lekeitxion jende guztia izango zan arrantzalia edo?
-Gehixenak bai, gehixenak, ta hongo historixak ezta?
-Eta zeu ez?
-Eeh?
-Zeu ez zara arrantzalia izan?
-Nik hamalau urte naukozanian urten neban eskolatik, gehixao ikasi neban ta, hamalau urte ikasten egoteko, gehixao ikasi neban ta sartu nintzan, automobilak euazan, "linea de automobiles", Lekitto ta Bilbokuak; taillerretan, hantxe taillerretan, ta hantxe ein nebazan berrota hamabi urte. Hantxe sartu, ta handixik jubilau. Gero [...]honek aa...erosi ein zirian ta lelengotan zirin batzuk, gero saldu ta beste batzuk, ta holan ein zirian ezta? Lehenoko Lekitton arrantzarako.

2. Itsasoko lana eta lehorrekoa

- **Erref**: LEK-001/006
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:07:00. **Bukatu**: 00:07:55
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Lekeitio asko aldatu da. Berak ez zuen itsasoan lan egiteko tentazorik izan,

mareatu egiten zen eta. Lantegian sartzeko aukera izan zuen eta ondo atera zitzaiola dio.

Transkripzioa

- Asko aldatu da, Lekitto?
- Puf, total, goittik behera, goittik behera.
- Eta ba zuk e, ez ziñuan euki zuk e gogorik arrantzan eitteko-edo?
- Ez, ez nintzen, maria eitten nintzan, maria eitten nintzan, ez nintzen ee, lehena itsasora nahi eusten neuri be baiña, ee ez neban nahi, hantxe [...] ta gero, ondo urte eustan, urten ebanin ia beste gauza bat nintzon, ezta?
- Itsasoko bizimodua zer da gogorraua, lihorrekua baiño?
- Ba gustaten jakonentzako ez, ze daoaz pertsonak, baiña nitzako bai, nik ee ni maria eitten nitzan. Baiña beste batzuk ez, ta hantxe sartu giñun ta handixik aurrera edo bai.

3. Umetatik bildumak egiteko interesa

- **Erref:** LEK-001/007
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:07:55. **Bukatu:** 00:10:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>7.805 argazki omen ditu sailkatuta. Lekeitioko historia ondo ezagutzen duela komentatzen dute. Umetatik izan du halako gauzetarako zaletasuna. Lehenengo jaunartzea egin zuenean "Eliz-liburutxoa" izeneko liburu bat eman zieten eta hura omen da gordeta duen lehen liburua.</p>

Transkripzioa

- Eta olakuak zemat daukazuz asko?
- Berrota hamabi.
- Berrogeta hamabi holako?
- Zazpi mila zortzirehun da bost argazki daukot. Heuren temakin, ezta?
- Bai.
- Lekitto asko goittik ta behera aldatuta.
- Orduan Lekeitxioko historixia-ta ondo ezautuko dozu zuk?
- Eh?
- Lekeitxioko historixia-ta ondo ezautuko dozula zuk, ez?
- Bai hombre, horixe zan neure afiziñoia ta, holantxek ixanda, eozar en bihar neban da. Lehen zana [...] da holan pasaten gendun denpori.
- Eta noiz hasi ziñan holako kontuak jasotzen?
- E txikitxatik neukazan, daukat ondioko guri lehenengo komunioia eieuskunian, "primera komunio" emote euskuen liburutxu bat Elez liburua jakon ixena. Euskeraz indda lelengoz zana.
- Bai
- Ordun denboran da. Ta lelengo daukaten liburua haixe daukat, lelen daukaten liburua. Ta gero, beti ha edo bestia edo topaten zana edo batun da...maletia beteko neukoke. Amak esaten eustan: "zetako da? Etxin ez daukau nun euki be ta, zeure paperok eta braetak". Afizinoi neuri zan ta, geldi, geldi, geldi, geldi geldika balidxo ixan eustan asko, ze gauzak ondo erun nebazan. Neure bizitzia zan "hobby" esateutzan batek, ezta?
- Mendizali nintzan, ta karo beti biharra eukaulez beti ba ez eukaun ha,

ibiltteko holakoik baiña, Urrarixan ixan gara, Aizgorrin be bai ta horretan.
- Bai, eh?
- Baiña hogeta hiru urteaz, hara be idxon genduan [...], Lekittarra zan, harek eta bixok. Ta bestelan ingurutako mendidxetan ta ahal nebanian.
- Bai ba.
- Ze autobusen gora beheria eguneroko lana zalez, nik domekan librako.
- Bai, lehen kotxerik eta holakorik ez zan egongo, edo oiñez edo autobusa hartu bihar, ez?

4. Lehenengo lineako autobusa Lekeition

- **Erref:** LEK-001/008
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:10:00. **Bukatu:** 00:11:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

Laburpena:

<p>Bizkaiko lehenengo matrikula. 1907an jarri omen zen lehenengo lineako autobusa Lekeition.</p>

Transkripzioa

- Hor bai, hor topaten diraz, lelengo, Bizkaidxan [...] euken matrikulia hogeta zazpi, hamalau matrikula Lekittokuna eduki bana. Lelengo ipiñi eutsana Lekitton kotxiari kenduta, “autobus de linea” zan Lekittoko Delaia, hori be han dao “en mil novecientos siete”.
- Autobusa ipini zan baña? Alkilerreko edo linea zan?
- Linea, linearako.
- Linea.
- Bai. Etorten zan ha, hortik bat, Filipinastik lekittar bat han izanikua hamen aberasteko esperantzan, ta hamen gogor urte eutsan kutxeruk ta halan ta guzti be ze ein ban? Itxi ban beren kotxiori ta enpresa baten handidxo sartu zan, ta hori prozesuori argazkixakin ta danakin daukat ha...
- A bai?
- Hasi zanetik eta. Hon eongo da...
- Historixa guztia.
- Bai. Ta on ha, liburua nahi daben lez ein, batzuk hona ekarri dotez ezta, atzera eruteko neure tokira baiña. Ta on esplikaten naon hau gora beheriori hontxe agertzen da, dan hori.

5. Lekeitioko bizimoduaren aldaketa

- **Erref:** LEK-001/010
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:12:05. **Bukatu:** 00:14:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Mendizalea izan da eta eta txoritarako zaletasuna ere izan du. Ez zuten dirurik izaten eta horrekin entretenitzen ziren. Pobre aberatsak badaudela dio.

Lehen Lekeition lana nondik sortzen zen. Lau astillero zeuden herrian, esaterako. Gazteak normalean itsasoko lanetarako prestatzen ziren. Gauzak asko aldatu dira. Lekeitio diru aldetik nahiko ondo bizi zen herria zen.</p>

Transkripzioa

- Esan dozu orduan mendizalia izan zarala?
- Bai, mendizalia-edo...
- Eta animalixak eta gustau ixan jatzuz?
- Txoridxak eukitxen nebazan etxian.
- Bai?
- Bai, jilgeruak-eta, kamarixorikn eta ez, bertokuk, torretxoririk bez e!
- Torretxoririk bez, e?
- Ez.
- Holakorik ez, e?
- Bai.
- Eta hori be kanbixau ein da on txori kontua ta?
- Bai, ez diraz on abidxaten honek ongo gaztiak gero, ongo joeria gehidxo da tabernia-edo, edatia ta beste. Ze lelengo ta bat dirurik ez eukaun baiña pobre aberatsak be eoten diraz, nik ikusi dot hamen jente aberatsa baiña jente galdua, ezta?
- Egixa.
- Ta hamen be bakixu ze pasaten dan baiña hamen gero beraneantiak eta beste jokera bat, ezta? Baiña bueno pentsa eukauzan hamen hogeta hamabi bapor baiño gehidxo, Tretseruak gaur ez doz, sei-edo, ontxe dabiz batzuk eitten barridxak, gero eukauzan hortik kanpora lau astilleru baporak eittekuk.
- Hamen bertan?
- Bai, bat dao on holan-holan dabil baiña bueno bapez, taillerrak ta gero inportantiena zan “Fabricas de conservas” esaten jakona. Horrek eukazan honak eta nahiku gure herridxentzako. Gaur be bat bakarrik do baiña berak be kanpotik ekarri eitten dau arraiña, osake, zentzun horretan, aldatu ein biha da, baiña horrerri bide barri bat ipintteko ta gauza dan (...) izateko, barririk ez dou sortu. Aitzen nazu?
- Bai, bai, bai.
- Segun zer, turismuak-edo, ia emoten badau. Ta on a ba gaztedidxa be ez da lehenagoko modun ez da. Danak ogidxa nahi ta itxasora ikasten. Ulertzen dozu? Pilotuk eta kapittanak eta nautikakuak eta, on ez dao nautikakorik be, baiña lehen famili askotan ha zozer dirutxu eukanak ha euren umiari emoten eutsen, karrera bat, o bien zala makinista aldetik o piloto aldetik eta da...beiratu diruari ta ondo, nahiku ondo bizi zan herridxa zan Lekitxo.
- Bai ez?
- Bai, denen zentzunian, ezta? Millonarixo be ez eukoun iñor, ogidxa bidian erosten behintzat.
- Eta bihar asko ein bihar baiña biharra einda ondotox bizi zan herridxa.
- Bai, on hori aldau ein da, hori aldau ein da.

6. Gaztetan txoritarako zaletasuna

- **Erref:** LEK-001/011
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:14:50. **Bukatu:** 00:17:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Natura » Fauna

Laburpena:

<p>Gaztetan txoritara joateko zaletasun handia izaten zuten inguruko mutikoek. Txoriak "likiaz" nola harrapatzen zituzten kontatzen du. Kantatzen zuten txoriak harrapatzen zituzten. Habia bila ere ibiltzen ziren. Inguruetan txepetxak, kardantxiloak, zozoak, birigarroak... aurkitzen zituzten. Kilker bila ere ibiltzen ziren. Eskopetarekin ibiltzeko zaletasunik ez du izan, gerran izan omen zuen nahikoa eta.</p>

Transkripzioa

- Eta esan dozu zuek afiziño handixa zekazuela txoritxan-eta ibiltzeko ta...?
- Bai hombre.
- Bai.
- Asko, gaztetan hamen asko.
- Harrapatzen be bai?
- Bai, txoridxak baiña liskiaz ta.
- Zelan?
- Liskiaz, liskia.
- Eta zelan eitten da hori?
- Ipini lelengo, hartun arbola adar bat, sartun. Ta gero, hartzen diraz haunako beren adarren gauza handi batzuk, ta emoten jako liskia, liskiaz ipintzen jako. Ta txoridxak, ipintten jako albuane beste txori bat kantaten. Ta ze eitten dau, etorten da ta paraten dalez, preso geratu.
- Bertan geldittu pegata?
- Bertan pegata geratzen da
- Eta holan zer harrapatzen zenduen?
- Gilgeruak, gilgeruak-eta, holako txorijak, torratxoririk eta holakorik ez, kantaten eben txorijak ezta? Ze kaidxolan ipintten jakon kantaten ebana ta afiziño haundixa euan hamen, hamen mendi inguruan.
- Osake likiaz?
- Eh?
- Liskiaz?
- Liskiaz bai [...] ta gero habidxetan be bai.
- Habidxetan be bai ibiltzen ziñazien?
- Ene! Gazteridxak horrek atrapatzen ebazan.
- Eta ze, ze harrapatzen zenuen?
- Segun, ze habidxa topaten zendun. Han ez zan eoten ze harrapau baiña topaten zana.
- Eta zer topatzen zan hamen?
- Hamen, gehidxen, torratxoridxak eta honek goi partian eitten ebezelez, ba gehidxen honek txepetxak, jilgeruak gehidxen, ta gero baitta be topaten zirin enarak eta honek, balkopitan eitten ebezen, horrek ez ziran atrapatzen. Sosuak be bai, sosun habidxa, birigarrunak be bai. Ta ongo gaztik ez diraz...ta gero grillotan be bai.
- A bai?
- Grillotan be bai, sartu ziridxa...Ta on ez dakit juten dirazen edo...
- Gitxiago seguru.
- Osake ez dau ongo mezuak balidxo?
- Eta eskopetiaz ez ziñazien ibiltzen, karabiñiaz?
- Ni neu ez naz ixan eskopeta zalia. Gerran euki gendun hori. Ta...
- Nahikua.
- Nahiku ta gehidxao, ez gendun ezer atara handik, etxetik kanpo urte

asko. Aldan modura...

7. Perretxikotarako zaletasuna inguruetan

- **Erref:** LEK-001/012
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:17:15. **Bukatu:** 00:18:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila

Laburpena:

<p>Inguruetan perretxikozale asko zegoen, baina berak ez du hainbesteko zaletasunik izan. Zizak egoten omen ziren gehien inguruetan. Arrautza-perretxikoak ere baziren, baina gutxi.</p>

Transkripzioa

- Eta perretxikotan, eitten zan perretxikotan?
- Bai, perretxikozaliak asko zirin hamen inguruan.
- Bai?
- Asko... neu be iñoz jun naiz baiña ez doten lez ezagutzen, anguk eta... ee eoten zirin baiña... jatia gustaten jaten baiña... topaten baiña ez ezta launakin afiziño gehixao eukenakin.
- Eta zeintzuk zirin hamen egoten ziran hongo edo perretxiko normalenak?
- Gehidxen horrek, zelan deitzen jake eurari, ez dakit, ixena be ahaztuta daukat...
- Suzak-edo?
- Zuek suzak, guk sizak.
- Sizak esaten dozue?
- Bai, bai. Arrautza perretxikuak be bai asko ez ee...
- Arrautza perretxikoak be bai?
- Asko ez ee, horrek gitxio, horrek ez dira eoten.
- Horrek gozuak ez?
- Baai, "oola". Da gaurko gaztik ee...
- Zer danik bez?
- Ee?
- Zer danik bez, arrautza perretxikoa, zer danik bez?
- Keba. Ez dakidxe ta... aldendu.

8. Itsasoan ibiltzen diren txoriak

- **Erref:** LEK-001/014
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:18:30. **Bukatu:** 00:18:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

<p>Itsasoan ibiltzen diren txoriak: kalatxoriak, potorroak... Potorroak nolakoak diren azaltzen du.</p>

Transkripzioa

- Ee itsasuan eta ze txori ibiltzen dira?

- Kalatxorixak, zantzia eh... ta gero potorrúa.
- Potorrúa zelakua da?
- Baltza ta zuri antzekua, eoten da ur ganian da dzanga eitten dxau daa... eruten dau toskun arraiña da gora osterá be.
- Holan txikitxue?
- Bai, potorrúa, askori ez jake gustaten.

9. Itsasoko txoriak

- **Erref:** LEK-001/017
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:19:40. **Bukatu:** 00:21:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

<p>San Pedroetako antzar egunean inoiz beste hegazti mota bat ere jarri izan omen da haien lekuan, baina hark lepo gogorra du eta zailagoa omen da kentzea. Itsasoko beste txori-klase batzuk.</p>

Transkripzioa

- Eta, beste txori batzuk edo gogoratzen dozuz? Holan ee... itxasuan ibiltzen diran beste txori batzuk?
- Hamen ee... San Antoliñetan kopliaten zirin ee... on be eitten diraz Antzarrak.
- Ah bai!
- Koplia ekarten eben, koplia jakon ixena, ta eukitte eban kokota gogorra. Ta iñoz ipintten dabe ha baiña ezin kendu gogorra...
- Antzarran lekuan?
- Bai ba, antzarran lekuan koplia... baiña on ez dao...
- Eta karrabazua?
- Karrabazua be bai. Karrabazuen sasoiku da. Koño, karrabazua.
- Hori zein da, bal-baltza-edo?
- Ez jat gomutaten ee, karrabazua.
- Eta hamen beste batek esan zestan zerela txiki batzuk baporien ostian eta joaten diranak. Txikitxo batzuk... Matxiplanak-edo?
- Matxiplakia? Matxiplakia.
- Hori ikusten zan hamen?
- Bai matxiplakia baiña gitxitxuo, ezta? Honek gitxio. Matxiplakia ixen politta ee?
- Bai, eta gero beste txori batzuk holan ee... itsasertzian eta egoten diranak?
- Asko diraz da...
- Holan moko luziaz eta?
- Ez jat akordaten...
- Kurlink... edo, kulinkak-edo?
- Kurlinkia, kulinkak, kulinkak.
- Kulinkak?
- Eta zelakuak dira ba horrek...ee holan ee?
- Kulinkia... hamen gitxi ikusten da hori ia e...

10. Lekeitio eta inguruko herrietako euskara

- **Erref:** LEK-001/020
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:23:35. **Bukatu:** 00:24:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

<p>Lekeitio eta Ondarroan hizkera desberdina egiten dela dio, doinu desberdina. Ispasterren ere baserrietan desberdin hitz egiten omen dute, izan ere arrantzaleen hizkeratik baserrietakora aldea nabaritzen du.</p>

Transkripzioa

- Eta, lehen kontu dozu Rufo, lehen Lekeitio eitten zala bakarrik hamengo euskaria ez?
- Bai.
- Pixkat sartu ta...
- Bai, bai.
- Diferentia.
- Aaa, Mendexan modu batera, ez dana. Hau ispasterarra da, hau lekittarra da, ondarrutarrak eta lekittarrak diferentzi handidxa. Ez soñun ta, euren tonun, ezta? Bai halantxerik da.
- Eta Ipasterren?
- Ipasterren, ba baserrietan hamengo beste bat [...] Ariñei igarten jakun arrantzalin berbetia ixan edo... Hori pentsa [...].
- Eta baserriarrena diferentia?
- Diferentia bai, ez dot nahi esan [...] bata bestiena, baiña doiñu diferentia bai.
- Ta lekeitxiarrak bertakua.
- Lekittarrok geuria, esate eben euskara bastante garbidxa eukaula.
- Bai.

11. Herriko kanta ezagunak

- **Erref:** LEK-001/021
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:24:40. **Bukatu:** 00:27:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

<p>Lekeitioko Bergara kalean jaio zen, kalerik "popularranean". Lekeitioko pertsonaia "onenak" bertakoak omen ziren. Hauen inguruko kanta bat errezitatzen du. Orduan asko abesten zen. Beste kanta batzuk errezitatzen ditu.</p>

Transkripzioa

- Eta zu jaixo nun jaixo ziñan Lekeitio?
- Lekitton.
- Nun, ze kaletan?

- Bergara kalia, Lekitton daonik kalerik popularrenin.
 - A bai?
 - Han euzan personajerik onenak aa, Lekitton euazanak. Langredo ta Pitxarra. Ezixenak ezta? Emakume arroiñatik-eta. Langredo ta Pitxarra pertsebatan hasi, Langredo gixajua txirrist endda jausi, baitta pitxarra parez etxera jausi, honako parejarik ez dxuat ikusi. Kantia.
 - Orduan asko kantaten zan?
 - Asko...
 - Bai?
 - Asko. Hombre, honek ez dabe eitten baiña, honek on ee gure kantak hondatu dabez, on e... Bagoiaz danok estrepedsuan, bakotxa beren tostara, e... bagoiaz danok, mariñeruak bruum! Bagoiaz danok estrepesuan bakotxa beren tostara. Tostia jesarlekua da dagona. Andra ta umiak ohian itxitta lihorrekun kontura. Da on kantaten da, andra zantarrak ohian itxitta txaputxerun kontura. Pentse zelako... Lekeitioko kalia [...] denporalian hoge txitxarro ta gehixao sartzen diz zabelian, baiña guztiak aldian. Harek asko [...] Lekittora harek kanta danak atarata on zeuena. Hasi tala puntatik eskolaperaño, ez da ikusten besterik tabernia baiño, nor ez da mozkortuko hainbat tabernakin, baitta islako akerrak eraten baleki. Tali da kurtzidxoduna, da portua aurrian, da lehen akerrak euzan islan.
 - Bai?
 - Nonoz... Ta gero eon zirin milla lio da kendu eibez, ezta? Bai.
 - Eta bat edo batek eruanda?
 - Bai, erunda.
 - Han lagata?
 - Bai erun, izteko hantxen e... zea, piñuk euazalez haretzek garbiuten e, bedarra jateko. Hantxe euazan. Ze lehen hor konbentua eon zan ba, ez gure denporan, lehengo garaixetan. Hontxe be hor doz oiñarridxak harenak.

12. Lekeitioko jaiak; San Antolinak

- **Erref:** LEK-001/022
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:27:15. **Bukatu:** 00:31:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Lekeitioko jaiak zeintzuk izaten ziren: San Antolinak, Gorpuzti eguna, San Pedroak... San Pedro egunean kaxarranka egin izan da beti. Dantzako musikarekin abesten zen kanta. San Antolinetan ze ospakizun egoten ziren. Lehen ez zieten uzten emakumeei antzarretara joaten. Antzarren jokoa nola aldatu den. Zazpi eguneko jaiak egiten ziren San Antolinetan. Lehenbiziko egunean "Anteroren jaitsiera" egiten da. Dantzaldian neskak dantzan egoten ziren eta mutilak dantza eskatzera joaten ziren. Lehen ere etortzen ziren kanpotarrak Lekeitiora. Autobusean inguruak erakustera eramaten zituzten. Antzar egunean ere etortzen zen jendea, beti izan da ezaguna eta.</p>

Transkripzioa

- Eta lehen jaidxak eta zelakuak izaten ziran?
 - Jaidxak, San Antoliñak aparte, ezta? Gorpuzti euna, Santa Pedro euna, San Juan euna... hor [...]. San Pedro egunian kaxarrankia, eta berena holako kantia holako [...] "Zeure bular arteko krabelin [...], zeure begirada

horrek [...], ai ze leku ederra pilareen onduan, hantxen ixango duzu laurak inguruan". Jantzako musikian, ezta? Hori andren dantzi ixaten zan andrena, ontxe be eitten dabe hamen andrak, lehenotik datorrena da hori.

- Ta San Antoliñak zelakuak ziran, ongoak modukuak-edo?

- Bueno, San Antoliñak guztiz aldatu dira gauzak, ezta? Baiña bai, pelota-partiduak ordun denporatan ta gero kanpotik banda pare bat jotzen zirin, hortik kanpora gero ba antzarrak-eta... danak antzerakuak ez da? Baiña on beste jokaera bateaz, lehen ez zan ixten emakumiari juten antzarretara. Gizonak baiño. Lelengo lelengo, gidxonak abantian, baiña "a toda vela" juten zin. On ganora barik, beste [...].

- Lehen ze zan? Gogorraua?

-Bai, lehen deportibo, baiña on beste era batera, on neskak eta mutillak, esku sartzeko moduan.

-Eta ze egoten zan? Zeoze espeziala San Antoliñetan? Zeoze eitten zan?

-Ba ez, zazpi eguneko jaidxak eta eon diz ba.

-Zazpi egun? Ondo orduan.

- Lehen modu batera, bizperatik, bajadia eitxen da on, lehen eitxen ez dabena. Ta elidxako kanpadorretik bajatuten da Anteron. "Anteron Txamarrotia Francoren bigotia, harexek ei dauko preso Euskal Herridxa" esaten da da. Ha bajatzen da on, [...] ta gero ayuntamientun urteten dau eta gero plazan batzen da gazteridxa, eta eitten dabe erromeri itzala.

-Eta gero ze egoten zan? Bailia-edo?

-A, hori baili bai oño, baili bai, baiña ongo modura ez, neskak urteten eben [...] ta mutillak: "Jungo gara?" [...] Juten gara ta, "ondo banatuta dao, bueno ondo dao", lagundu ez. Jungo gara beste batera ta, harek "bai". Ta ezer ez zan pasaten.

-Normalian ze izaten zan, baietza edo ezetza?

-Joe, ez bazan gustaten mutilla ezezku, ze herrikuk giñilez danok.

-Danak ezagunak?

-Bai! Ta kanpokuk bakizu, kanpokukin beti gustorago.

-Ta kanpoko jenterik egoten zan hamen?

-Bai bai! Ba ongo beste ez, ongo beste ez, baiña bai. Herri ingurutatik eta beti. Gure autobusakin ekarten genduzan-eta. Gero gabaz hamabidxetan eruten genduzan.

-Ta nora?

-Ba gehidxen bat aldiara. Ta gero aldiatik, beste aldetik ba Markiña ingurura eruten zirin. Azkanengo, ariño be noz [...]. Ekarri be bai Antzar egunian, antzar egunian... Antzar eguna famosu ixaten zan beti.

13. Ondarroar eta lekeitiarren kontuak 1922ko Kontxako estropaden inguruan

- **Erref:** LEK-001/023
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:31:20. **Bukatu:** 00:34:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Kirola » Uretako kirolak

Laburpena:

<p>Lekeitiar eta ondarroarren arteko kontuak. 1922an, ondarroarrek Donostiara estropadetara joatea pentsatu zuten. Lekeitiarrek ere Isuntza izeneko trainerua egin zuten, baina ez joatea erabaki zuten, hara joaten

zirenak baino gutxiago zirela eta. Ondarroarrek trainerua eskatu zieten lekeitiarrei, eta haiek baldintza jarri: Donostiara ere traineru harekin joatea. Horren inguruko kontuak. Azkenean, ondarroarrek irabazi egin omen zuten. Bere garaian, ez du ezagutu Lekeition estropadarik, baina aurretik egiten omen ziren.</p>

Transkripzioa

- Eta ondarrutarrekin hartu-emona zelakua izaten zan orduan? Ondo konpontzen ziran lekixarrak eta ondarrutarrak?
- Beiratu, lelengotan pentsa eban, ondarrutarrak, Donostiko estropadetara jutia ta lekittarrak, konde bat euan hamen, harek eiban traineru bat bertokuak ibiltteko nahi badabe jua gero. Dxaukon izena “Isuntza”, oin daukaun “Isuntza”. Ta ondarrutarrak preparau zin “en el año veinte dos”-en juteko ta ondarrutarrak gogorak ixan dira ezta? Ta lekittarrak sekula ez diraz Donostin ixan. On juten diraz baiña orduan ta preparaten euazan ta lekittarrak esan bez: “ez goiz gu, ze gu baiño gehidxao diz”[...]eta. Ta ondarrutarrak ikusi ebelez triñeru barrixa eukela ba itxi eutsen traiñeruari, osa eurari, eurak eñiko traiñeruan jungo dizela ta, baiña kondiziño bateaz e? Haretxeaz juteko Ondarrura, edo Kontxararte. Baiña ze etxeben, itxuria danez, euren entrenamentutan erabili ta harako bestia eruten eben ta orduan kendu eutsen lekittarrak eta aurrera. Ni gaztia ixango nitzan ordun.
- Hau noz esan dozu, hogeta bixan?
- Hogeta bixan bai horixe, bai nik aa... hamar.
- Hamar.
- Ba ondarrutarrak jun zirin ta irabazi eiben, irabazi eiben ondarrutarrak. Gero kantan ta jantzan eitten eben ba! Kantautoriak edo? Mekauen...
- Eta hartu-emona, zelan za, ondarrutarrak ze ziran lekeittiarren lagunak edo pixkat...
- Ez, ez ,ez,ez. Ezebez. Ezta sekula ez da eon e, beste herrijakin hartu emon handixo, arrantzale aldetik, ezta? Lihorrian aa gero gauza batek besti nahasta eitten dau, bai bai.
- Eta estropadarik eta eoten zan hamen?
- Lekitton? Ta baiña lehen bai, egoten ei zan. Baiña ongo denporan da on a[...]
- Bai baiña.
- Bai.
- Da traiñerurik bez?
- Traiñerua gaur egun baukauz, traiñeruak.
- Baiña lehen?
- Lein be...
- Baiña zure sasoian da eitten zan?
- Lehen be eiben, Isuntzan euki ben, bai eiben, horixen, Isuntzan. Ondarrutarrak juteko zirin baiña gero ezin jun...

14. Zita enperatriza Lekeition

- **Erref:** LEK-001/026
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:40:30. **Bukatu:** 00:41:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Zita enperatriza Lekeition bizi izan zen denbora batez senarra hil eta bere

zortzi seme-alabekin desterratu zutenean. Gerra hasi arte egon zen Lekeition. Semea ezkondu zenean bisitan itzuli omen zen Lekeitiora, sekula ez zelako herriarekin ahaztu. Lekeitioko herriak ere ez omen zituen haiek ahaztu, pertsona onak zirelako.</p>

Transkripzioa

- Eta zein da historixia ba enperatrizana?
- Enperatriza, eon zan Lekitton, bakixu desterrata bialdu eben, bere zortzi seme-alabekin, gixona hildda ta hamen etorri zan, gerria hasi arte, gerria hasi zanian ha urten en bihar zan, ezta? Ta emon eban /emonban/ ejenplo bat bueno iñok emon baban ha, pertsona onak eta dirurik eta ez euken laguntasunaz-ta, benetako pertsonak zirin harek, ta gero jun zan ta ezkondu zanian semia Otto ta etorri ein zirian ha bisittan, sekula ez dira Lekittoaz ahaztu, ta geu be ez eurakin e?
- Ez?
- Honbre.
- Lekeitxok asko maitte zeban?
- Bai, bai, bai, bai, benetan e? Ta gerran be amak ha influidu ban “pena de muerte” euazan batzuk hil ta ez eitteko ta... Bueno, bueno, bueno, on-onak. Onak zirian.
- Izena zelan jakon? Enperatrizak?
- Zita.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-07

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com